



Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saila  
Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua  
Esp. Zk.: 4546/19

## **FORU ARAU PROIEKTUA, ZEINAREN BIDEZ LANKIDETZA HITZARMENA IZENPETZEN BAITA EHU-REKIN, “DIGITAL MANAGEMENT & ERP: ENPRESAREN KUDEAKETA 4.0” MASTERRA EMATEKO.**

### **ZIOEN ADIERAZPENA**

Proiektu honen helburua da hitzarmena izenpetzea EHUrekin, “Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0” masterreko (berezko titulua) prestakuntza programa garatzeko 2019/20 eta 2020/21 ikasturteetan Gasteizen, EHUko organo eskudunak onetsitako ikasketa planarekin bat etorritik. 4.0 Enpresaren kudeaketaren arloan gero eta gehiago eskatzen dira osagai digital handia duten lanbide profilak, eta master honek erantzuna emango dio eskaera horri. Espezializatzeko, birziklatzeko eta ezagutzak eguneratzeko bidea da bai titulatu berrientzat bai lanean ari diren profesionalentzat. Aro digitaleko erronka berriei heltzeko gaitasunak garatzen ditu, eta kudeaketa eredu tradizionalak egokitzen ditu aldaketa teknologikora eta eraldaketa digitalera.

Oraingo honetan, “Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0” masterreko berezko tituluaren bigarren edizioa abiatu da, 2019/2020 ikasturtekoa, eta hura eman eta existituko dela bermatzeko eta tinkotzeko, nahitaezkoa da aldundiaren ekarpena bi ikasturterako, haren plangintza eta finantzaketa errazteko; hortaz, aurreikusten da Arabako Foru Aldundiak masterraren hirugarren edizioa ere babestea.

Horregatik, beharrezkoa da aparteko hitzarmen berezi bat sinatzea, interes publikoko arrazoiak ere badirelako, bat etorritik Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 20.3 eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin. Horrez gain, EHUri zuzeneko dirulaguntza emateko publizitatea eta lehiaketa egiteko betebeharra kentzen da.

Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, 87. artikuluan, aurrekontua luzatzeko araubidea zehazten du. Honako hau xedatzen du hirugarren apartatuan: *“Foru Aldundiak bakar-bakarrik diru-laguntza arruntak eman edo kapitaleko eragiketak egin ditzake horiek indarrean dauden xedapen eta hitzarmenen arabera onartuta baldin badaude xedapen eta hitzarmen horietan jasotzen diren zenbateko eta baldintzekin, betiere luzatzen den ekitaldia amaitu baino lehen jasota baldin badaude eta urte bat baino gehiagorako baldin badira”*.

Aurrekontu luzatuaren kontura egin beharreko dirulaguntza esleipen berriak Batzar Nagusiek onetsi behar dituztenez, foru arau proiektu hau izapidetu behar da.

Foru arau honen izapideetan kontuan eduki dira araupetze onaren printzipioak, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen dituenak eta maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 3. artikuluan biltzen dituenak. Hala, nahikoa arrazoitu da azalduko



aurrekarietan hura onartu behar dela eta, gainera, jarduera arauemaile proportzionatua da, xedea, kaltetutako ustategien jarduera leheneratu eta berriz hasia, lortzeko ezinbesteko minimora mugatzen baita.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Gainera, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (15. artikuluan), eta otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak (3. eta 23. artikuluetan), xedatutakoa betez, arau hau emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioaren arabera planifikatu da.

**Artikulu bakarra.** Arabako Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmen bat sinatuko du EHUrekin " Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0" masterra emateko (eranskinean zehazten da haren edukia). Hori dela eta, erakunde horri 32.000,00 euroko zuzeneko dirulaguntza emango zaio hitzarmenean jasotako ekintzak gauzatzeko, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Arauaren 20. artikulua 3.c) apartatuan aurreikusitakoaren arabera. Dirulaguntza hori emateak ez du eragingo Foru Aldundiaren kreditu osoa aldatzea.

**Azken xedapena.** Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.



## **LANKIDETZA HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN (EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA) ETA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ARTEKOA**

Gasteiz, 2019ko \_\_\_\_aren \_a.

### **BILDU DIRA**

Alde batetik, MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO, Arabako Foru Aldundiko lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua den aldetik.

Bestetik, \_\_\_\_\_, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanoa den aldetik.

Bakoitzak bere erakundearen izenean eta ordezkaritza dihardu, eta hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen dizkiote elkarri.

### **ADIERAZTEN DUTE**

Arabako Foru Aldundiak azken urteotan Arabako prestakuntza sistema –unibertsitateak eta lanbide heziketako ikastegiak- tinkotzeko laguntza eman ohi du, industriaren beharrian berriei erantzuteko RIS3 Euskadi estrategiaren esparruan.

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak, besteak beste, berrikuntza sustatu eta bultzatzeko eginkizuna du, lurraldeko lehiatze gaitasunak hobetzeko xedearekin, eta jakitun dago 4.0 Enpresaren arloan gero eta gehiago eskatzen direla osagai digital handia duten kudeaketa profilak eta horiei erantzuteko beharra dagoela.

EHU zuzenbide publikoko erakundea da, sektore anitzeko eta jakintza arlo anitzeko irakaskuntza eta ikerkuntza eta garapen zientifiko-teknologikoan diharduena. Bere helburuetako bat da jakinduria sortu, kritikatu eta eskualdatzea, lagunduz ezaguera gero eta handiagoa izaten eta gizartea garatzen ikerketaren bidez eta emaitzak gizarteari zabalduz.

EHUk “Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0” masterreko (berezko titulua) ikasketak ezartzearen alde egin du, EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Arabako Atalean; izan ere Arabako Lurralde Historikoan eskainiko den Ekonomia eta Enpresako graduondoko lehen titulua baita.

Oraingo honetan, titulu horren bigarren edizioari ekin zaio, 2019/20 ekitaldikoa, eta hura eman eta existituko dela bermatzeko eta tinkotzeko nahitaezkoa da aldundiaren ekarpena bi ikasturterako, haren plangintza eta finantzaketa errazteko; hortaz, aurreikusten da Arabako Foru Aldundiak masterraren hirugarren edizioa ere babestea.



Hitzarmen hau izenpetzen duten erakundeek beren gain hartzen dute elkarlanean aritzea, 4.0 Enpresaren kudeaketaren kontzeptua barnean hartzen duen prestakuntza prozesua garatzearren, eta modu horretan Arabako Lurralde Historikoko enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzarren.

Horregatik, aldeek erabaki dute lankidetzaren hitzarmen hau egitea, hauen arabera:

## **KLAUSULAK**

### **LEHENENGOA: XEDEA**

Hitzarmen honen xede da finkatzea izenpetzaileen arteko lankidetzaren "Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0" masterreko (berezko titulua) prestakuntza programa garatzeko 2019/20 eta 2020/21 aldietan.

### **BIGARRENA: EKINTZA MOTA**

EHUK Digital Management & ERP: Enpresaren Kudeaketa 4.0 masterreko (berezko titulua) ikasketak ematea Gasteizen 2019/20 eta 2020/21 ikasturteetan.

Hitzarmen honen barruan dirulaguntza jaso dezakeen ekintzaren bat beste erakunde publiko edo pribatuen batek ere finantzatzeko badu, EHUK horren berri emango dio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari. Erakunde finantzatzaile guztiek emandako dirulaguntzen batura ezin daiteke izan inondik inora erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Hitzarmen honen bidez egingo diren ekintzek bete egin beharko dute otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerakoak, xedaturikoa.

### **HIRUGARRENA. ALDERDIEN KONPROMISOAK**

Hitzarmen honetan azaldutako helburuak lortzeko eta ekintzak gauzatzeko, hitzarmena sinatzen duten aldeek ekarpen eta konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

A.- Arabako Foru Aldundiak:

EHUri 15.000,00 euroko dirulaguntza ematea, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 19.5.19.1.10601.0702.4539001 partidaren kontura.

EHUri 17.000,00 euroko dirulaguntza ematea, 19.6.20.1.10601.0702.4539001 partidaren kontura 2020ko ekitaldirako konpromiso kreditu gisa.

B.- EHUK:

Hitzarmen honen xede diren jarduerak kudeatu eta onik amaitzea eta, ondorioz, kasuan kasuko masterraren berezko titulua ematea prestakuntza programa gainditzeko duten pertsonen.



Ekintzei berariaz publizitatea ematea, bigarren klausulan aipaturiko ekintzak Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen dituela ezagutaraziz, indarrean dagoen araudiaren arabera eta erakunde bakoitzaren nortasun korporatiboko eskuliburuetan ezarritakoari jarraikiz.

EHUK baimena ematen dio Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzari dagokion administrazio edo organoari eska diezaion dirulaguntza ordaintzeko eskatutako betekizunekin zerikusi zuzena duten datuei buruzko informazioa.

### **LAUGARRENA: GASTU HAUTAGARRIAK**

Hitzarmen honen I. eranskinean agertzen diren gastuak ordaindu ahal izango dira emandako diru laguntzaren kontura.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa sektore publikoko kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoak baino gehiago bada (15.000,00 euro, hornidura edo zerbitzu kontratuak badira) eta, betiere, hirugarrenekin kontratatzen bada, pertsona onuradunak hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok eman edo egiten dituen hainbeste entitate ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzak justifikazio txostenean jaso beharko dira, eta eskaintza horien artean hautatzeko eraginkortasun eta ekonomia irizpideak erabiliko dira. Aukeratutako eskaintza merkeena ez bada, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean.

Gastuetarako diru kopurua gutxi gorabehera esleituko zaio partida bakoitzari, eta dirua partida batetik bestera transferitu egin ahal izango da, diruz lagungarria den kontzepturen bat egin gabe geratu bada ere, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak ontzat emanez gero. Aitzitik, aldaketa oso esanguratsua bada, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak ontzat eman beharko du gastua.

Hornitzailearekin loturaren bat edukiz gero, merkatu baldintzak aplikatzen zaizkien gastuak soilik onartuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inoiz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

### **BOSGARRENA. ORDAINTZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO MODUA**

Ordaintzeko beharra onartzeko, nahitaezkoa izango da entitate onuradunak aurkez dezala Masterraren Zuzendaritzaren ziurtagiria, non jasoko baita kasuan kasuko ikasturteari eman zaiola hasiera 2019ko abenduaren 16an beranduenez 2019-20 ikasturtea bada, eta 2020ko abenduaren 14an 2020-21 ikasturtea bada.

Honela ordainduko dira dirulaguntzak ikasturte bakoitzerako: justifikatu beharreko lehen aurrerakina ordainduko da kasuan kasuko ekitaldiko dirulaguntzaren % 50, aipatutako ziurtagiria aurkeztu eta gero. Gainerako % 50 kobratzeko, entitate onuradunak ondoren aipatzen den dokumentu justifikatiboa aurkeztu beharko du Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuan, urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehen:



Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko jardueren memoria, egindako jarduerak adieraziz.

Diruz lagundutako jarduerak eragindako gastuak sailkatuta ageri diren zerrenda, honako hauek adieraziz: hartzekodunaren eta agiriaren identifikazioa, zenbatekoa, agiria noiz eman zen eta ordainketa eguna. Zerrenda horretara zeharkako kostuak sar daitezke, gehienez ere gastu guztien ehuneko bostera artekoak, eta ez da egiaztagiri osagarriak aurkeztu beharko.

Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio bera duten agiriak edo administrazioan eraginkortasuna dutenak. Horiek aurreko paragrafoan adierazitako zerrendan jasotzen dira. Halaber, faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e eta E4ktur-en estandarretara egokitu beharko da haien formatua.

Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatza. Zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira.

Hiru eskaintzak eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, aukeraketaren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena, baldin eta partidaren bat 15.000,00 euroko mugara iristen bada.

Kasuan kasuko gerentzia edo organoaren ziurtagiria, non jasoko baitiren emandako ordu kopurua eta emandako ordu bakoitzaren unitateko prezioa, EHUko irakasleen ordainsariei dagokienez.

Dirulaguntzaren gastuen ordainagiriak; formatu hauek onartzen dira:

Egiaztagiri gisa aurkeztutako fakturak ordaindu izana egiaztatzen duen kontabilitate agiria.

Jatorrizko banku ziurtagiria, izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita, ondoko datuak zehazten dituen: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna.

Jatorrizko ziurtagiria, faktura jaulki duenak sinatuta eta/edo zigilua jarrita, datu hauek zehazten dituen: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

Posta arruntez jasotako banku laburpenak (jatorrizkoak).

Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

Dirulaguntzarako onartutako jarduera zehazten duten erosketa edo zerbitzuen agiriak edo ordainagiriak, kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak.

Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izan beharko dira, baina fotokopia konpultsatuak ere aurkeztu ahal izango dira.

Ordainketak arintzeko, agiriak ezarritako epealdia amaitu aurretik aurkeztu ahal izango dira.



Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

Epe horiek igaro eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasua zein den.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerri-dirutan) duen eragiketarik.

### **SEIGARRENA. PUBLIZITATEA ETA ZABALKUNDEA**

Alderdiek Arabako Foru Aldundiarekin adostuko dituzte publizitate eta zabalkunde ekintzak, bai eta hitzarmen honen xedearekin lotura duten ekitaldi publikoak antolatzeko modua ere, eta bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

### **ZAZPIGARRENA. ALDAKETAK**

Hitzarmen honetan zeinahi aldaketa eginik, jakinarazi egin beharko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta haren oniritzia beharko du, salbu eta funtsezko aldaketak badira, zeren orduan Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren oniritzia beharko baitu.

### **ZORTZIGARRENA. SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK**

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoia izango da hitzarmena izenpetzen duten aldeek hartan jasotzen diren klausulak ez betetzea, baita haren izaerari darion eta indarreko legerian jasotzen den beste edozein ere.

### **BEDERATZIGARRENA: HIZKUNTZAREN ETA IRUDIEN ERABILERA EZ SEXISTA**

Hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar da jaulkitzen diren agiri guztietan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa, betetzeko. Aipatutako legeri jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoa.

### **HAMARGARRENA. AZPIKONTRATAZIOA**

Baimena ematen da aurrekontuaren % 100eraino azpikontratatzeko.

### **HAMAIKAGARRENA: DATUEN BABESA**

Alderdiek hitzarmenaren dute datuen babesaren arloan dauden lege ezarpenak eta segurtasun neurri egokiak beteko dituztela.



## **HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen hau administratiboa da eta beronen interpretazioan eta garapenean ordenamendu juridiko-administratiboak agintzen du. Alderdiek administrazioarekiko auzien jurisdikziora joko dute auziak konpontzeko.

Hitzarmen honetan ezarritakoaz gain, aplikagarri izango da urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena, bai eta aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen ere.

## **HAMAHIRUGARRENA: INDARRALDIA**

Hitzarmen hau parte hartzen duten aldeek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean, eta halaxe egongo da 2021eko irailaren 30era arte, nahiz eta diruz lagundu beharreko jarduerak 2019ko urriaren 1etik aurrera egin ahalko diren. Bi urtez behin luzatu ahal izango da hitzarmena, aldeek ados daudela adieraziz gero, gehienez ere lau urte arte.

Ados daudela adierazteko, parte hartu duten aldeek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte goiburuan adierazitako tokian eta egunean.





**ANEXO**  
**2019/2020 IKASTURTEKO AURREKONTUA: DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN**  
**AURREKONTUA**

<b>GASTUEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE GASTOS (*)</b> <b>Begiz jotako kostua (BEZ barne)/ Coste estimado (IVA incluido)</b>	<b>Total</b>
Docencia Profesorado UPV/EHU	15.371,00 €
Docencia Profesorado Externo	25.930,00 €
Conferencias y Jornadas	1.500,00 €
Coordinación (Máster, módulos, prácticas, bolsa de empleo, trabajo fin de Máster...)	3.000,00 €
Dirección y Defensa de trabajos fin de Máster	2.000,00 €
Material de oficina	1.000,00 €
Publicidad, difusión	2.596,00 €
Cartelería, flyers, folletos, ...	1.500,00 €
Dietas, gastos de viaje y de representación, ...	1.500,00 €
Gastos indirectos (5%)	2.719,00 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>57.116,00 €</b>

\* **Partida bakoitzari gastuak gutxi gorabehera esleituta daude. Partida baterik beste batera alda daitezke kopuruak, ekintzen premiaren arabera, hitzarmenean zehazten denaren arabera / La asignación de gastos a cada partida es aproximada, pudiéndose transferir cantidades entre las mismas según las necesidades de las actuaciones, tal y como se especifica en el Convenio.**

<b>SARREREN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE INGRESOS</b>	<b>Total</b>
<b>Subvención DFA / AFAre</b> n diru-laguntza	15.000,00 €
Subvención Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	15.000,00 €
Ingresos por cuotas matriculación	27.116,00 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>57.116,00 €</b>



**ANEXO**  
**2020/2021 IKASTURTEKO AURREKONTUA: DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN**  
**GASTUAK**

<b>GASTUEN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE GASTOS (*)</b> <b>Begiz jotako kostua (BEZ barne)/ Coste estimado (IVA incluido)</b>	<b>Total</b>
Docencia Profesorado UPV/EHU	16.000,00 €
Docencia Profesorado Externo	27.000,00 €
Conferencias y Jornadas	2.000,00 €
Coordinación (Máster, módulos, prácticas, bolsa de empleo, trabajo fin de Máster...)	3.000,00 €
Dirección y Defensa de trabajos fin de Máster	2.000,00 €
Material de oficina	2.000,00 €
Publicidad, difusión	2.500,00 €
Equipación informática	5.000,00 €
Cartelería, flyers, folletos, ...	800,00 €
Dietas, gastos de viaje y de representación, ...	2.000,00 €
Gastos indirectos (5%)	3.167,00 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>66.511,00 €</b>

\* **Partida bakoitzari gastuak gutxi gorabehera esleituta daude. Partida baterik beste batera alda daitezke kopuruak, ekintzen premiaren arabera, hitzarmenean zehazten denaren arabera** / La asignación de gastos a cada partida es aproximada, pudiéndose transferir cantidades entre las mismas según las necesidades de las actuaciones, tal y como se especifica en el Convenio.

<b>SARREREN AURREIKUSPENA / PREVISIÓN DE INGRESOS</b>	<b>Total</b>
<b>Subvención DFA / AF</b> Aren diru-laguntza	17.000,00 €
Subvención Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	15.000,00 €
Ingresos por cuotas matriculación	34.511,00 €
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>66.511,00 €</b>